

Jende Xumea (Gente Pequeña) taldeetako gazte boluntarioen proiektuak 2018

2016-2017 ikasturtearen hasieran Jende Xumea – Gente Pequeña bi talde osatu ziren, bat Bilbon, bestea Zaragozan. Asmoa, 2018ko udan gazte-boluntariotzaren beste hainbat proiektutan parte hartzea. Bi urtetan zehar Formazio- eta prestaketa-topaketetan hileroko parte hartu ondoren, honako proiektuetan hartu dute parte azken udan:

1. Malvinas Argentinas-en. Argentina

Parte hartzaile: Zaragozako Gente Pequeña taldea, 8 neska eta 2 laguntzailez osatua. Ostaturia izan zuten Malvinas Argentinas-eko Anaien elkartearen etxetxo batean.

Data: uztailaren 15etik abuztuaren 13ra.

Eginkizuna: Hector Valdivieso salletar Eskolaren arlo ezberdinetan parte hartzea eta auzoan ere. Zehaztuz, besteak beste:

- Iritsi eta berehala lau eguneko ikaskuntza-topaketan parte hartu zuten Valle Hermoso-n, famili arazo nahiz pertsonalak zituzten neska-mutilekin.
- Hurrengo asteetan Eskolan, batzuek Haur Hezkuntzan ingeleseko klasetan lagundu zuten eta beste batzuek laguntza-klaseak eman zituzten Lehen edo Bigarren Hezkuntzan.
- “Casa de los jóvenes” izeneko eremuan tailerrak zuzendu zituzten eta jaialdiak eta gymkanak animatu.
- Lan-asteak izan ziren eta gogoeta egitekoak, baina bereziki partekatzeak. Taldean elkarren artean, eguneroko bileretan eta eskolako irakasleekin jarduerako-ordu ugarietan, une atseginetan eta konplikatuetan ere. Anaien partekatzeak, otoitzaldiak eta txango- eta bizikidetzaren-eguna. Eta batez ere neska-mutilekin partekatzeak izan ziren, txikiekin eta handiekin.



Balioztapena: Gazteek honela idatzi dute: “Buruarekin aztertuz eta, batik batik, bihotzarekin, konturatzen zara sentitu eta bizi izan duzuna hitzez jartzeko edozein eginahal baino askoz ere handiagoa dela, izan ere zaila baita adieraztea ikasi duguna nola izan den irakatsi duguna baino handiagoa, eta jasotakoa emandakoa baino.

Malvinas-ko elkartearen **ebaluazioa**: Honela diote besteak beste: “Boluntarioen taldeak gaitasun eta arreta handiz burutu ditu bere eskutan jarritako jarduerak. Bilatu eta aurkitu zituzten proposamen propioak eta gogoz eta emaitza onekin eramán zituzten aurrera. Haien ekarpenak aire freskoa eragin zuen neska-mutil, nerabe eta gazteen egunerokotasunean.”

2. Santa Cruz de la Sierra-n. Bolivia

Parte hartzaile: Bilboko Jende Xumea taldea, 14 gazte eta 3 laguntzailez osatua. Ostatua izan zuten Mercado Aguado-ko Umezurtzen Zentroan.

Data: uztailaren 14tik abuztuaren 17ra.

Eginkizuna: Umezurtzen Zentroko nerabeei laguntasuna eskaintzea eta hiriko bederatzigarren eraztunean aurkitzen den Plataforma Solidaria proiektuko jardueretan parte hartzea. Horretarako, bi taldetan banatu ziren eta talde bat aste batez lehenengo tokian gelditzen zen eta hurrengo astean bestera joaten, txandakatuz. Horrela:



– Umezurtzen Zentroko nerabeekin elkarbizitza estua izan zuten: ikasketetan lagunduz, lanordutan inprimategian beraiekin jardunez (josi, kolatu, koadernatu...) eta aisialdian ere, bereziki, asteburutan barnetegian gelditzen zirenekin.

– Plataforma Solidaria izeneko proiektuan, beren lankidetzak eskaini zuten proiektura datozen errekurtsu gutxiko neska-mutilentzako eskola-jardueretan eta jolasetan ere.

– Egonaldiaren erdialdean Boliviako independentziaren festan parte hartzea egokitu zitzaion: Plataforman txikienekin jantzi tipikoak soinean, barnetegikoekin kalera irten ziren desfilezera beste ikastetxe eta unibertsitateekin batera.

– Ilunabarrean Umezurtzen Zentroan biltzen ziren denak eta egunean bizi izandakoa partekatzen zuten.

Balioztapena: Gazteek diote ederra izan dela Anaiekin izandako elkarbizitza. Beti prest ikusi ditugu haien esperientzia eta jakinduria gurekin partekatzeke. Erakutsi digute, bereziki, besteen alde lan egiten, isilean. Pentsatzen dugu gure bizitzako atal hau ez dela ixten, baizik ireki besterik ez dela egin. Eskerrik asko hitza etengabe egon da gure ahoan hilabete honetan. Esperientzia honek, leku hark eta bertako jendeek, beti izango dute tokia gure bihotzetan. Hara, gure sentimendua ondo laburbiltzen duen esaldia: “Hemendik urruti, handik gertu”.

Umezurtzen Zentroko Anai Joseren **ebaluaziotik**: Berritasunez beteak izan dira boluntarioen jolas-jarduerak, laguntza akademikoa, haien presentzia, jarrera eta presentzia gazteen artean, nola tailerretan hala ikasketetan. Eskola-laguntza eskaini die, hobekuntzarako topaketak bilatuz, zeinetan gazteen itzaropenak ebaluatu diren.